



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Otaduik eta Rementeriak Kontzertu Ekonomikoa defendidu dabe Gernikako Batzarretxean, Autonomia Erkidegoetako Justizia Goi Epaitegietako presidenteen aurrean**

Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek eta Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, Espainiako Erresumako 17 Autonomia Erkidegoetako Justizia Goi Epaitegietako presidentek eta Aginte Judizialeko Kontseju Nagusiaren ordezkariak jaso ditue gaur arratsaldean Gernikan. Batzarretxeko foru liburutegian, eta Gernikako Arbolatik “Euskal Herriaren eskubide historikoen sinbolotik” metro gitxira, Otaduik eta Rementeriak Kontzertu Ekonomikoa defendidu dabe.

Batzarretxe honek eta mila urte baino gehiago dituan haretxaren leinuak, Konstituzinoan jasoten diran eskubide historiko honeek sinbolizetan ditue –Ana Otaduik azaldu dauenez–. Bizkaiko Batzarretako presidente andreak esanetan, Batzarretako egoitza “1979an, Gernikako Autonomia estatutua onartu zanean berreskuratu zan euskal autogobernuaren euskarria da, eta akordioan eta aldebikotasunean oinarrituta dagoan gaur egungo Kontzertu Ekonomikoaren oinarria da”. Otaduik adierazo dauenez, Kontzertua “euskal autogobernua hobetzeko iturria da, eta gaur egun eta etorkizunean aurrera egiteko borondatea erakusten dau”.

Topaketa instituzionala Batzarretxera sartzeko eskilaretan bertan hasi da. Batzar Nagusietako presidentek eta Ahaldun Nagusiak bertan emon deutse harrerea Justizia Goi Epaitegietako presidenteei eta Aginte Judizialeko Kontseju Nagusiko kideei, eta horren ostean Batzarretxeko Artxibategi-liburutegira joan dira, “mendeetan Foru Zaharraren eta Foru Barriaren, gure lurralde historikoaren foruen eta ohituren, jatorrizko aleak gorde izan dituan kutxa gotorrera”, adierazo dau Otaduik.

Bizkaiko Batzarretako eta Aldundiko ordezkari nagusiek berba egin eta gero, eta Ana Otaduiaren eskutik Gernikako Arbolaren kimua jaso ostean, epaileak Bizkaiko Batzarretako hemiziklora joan dira lehenengo, eta gero kanpora, familiako argazkia egiteko haretx gaztearen ondoan. Orain arte inoiz egin ez dan bisitari amaiera emoteko, Batzarretxeko Ohorezko Liburuan sinatu dabe, eta Batzar Nagusietako Presidentek, Jesús María Larrazabal katedradunaren “La Foralidad” liburuaren ale bat emon deutse.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Otadui y Rementeria defienden en la Casa de Juntas de Gernika el Concierto Económico ante los presidentes de los Tribunales Superiores de Justicia de las Comunidades Autónomas**

Gernika, a 19 de octubre de 2015

La presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, y el Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, han recibido esta tarde en Gernika, a los presidentes de los Tribunales Superiores de Justicia de las 17 Comunidades Autónomas del Estado, y a una representación del Consejo General del Poder Judicial. En la biblioteca foral de la Casa de Juntas y a escasos metros “del símbolo de los derechos históricos del Pueblo Vasco” -el Árbol de Gernika- Otadui y Rementeria han hecho una defensa conjunta del Concierto Económico.

La Casa de Juntas y la estirpe de su milenario roble simbolizan –según ha explicado Ana Otadui- estos derechos históricos reconocidos en la Constitución. A juicio de la presidenta de la Cámara vizcaína, la sede parlamentaria representa “el sustento del autogobierno vasco, recuperado en 1979 con la aprobación del Estatuto de Autonomía de Gernika, y es el fundamento del actual Concierto Económico, instrumento financiero basado en el acuerdo y la bilateralidad” . Para Otadui, el Concierto "es fuente de optimización del autogobierno vasco y voluntad de su desarrollo presente y futuro”.

El encuentro institucional ha comenzado en las escalinatas de entrada de la Casa de Juntas. La Presidenta de Juntas Generales y el Diputado General han recibido allí a los presidentes de los Tribunales Superiores de Justicia y a miembros del Consejo General del Poder Judicial, quienes, posteriormente , se han dirigido al Archivo-biblioteca de la Casa de Juntas, “la caja fuerte en donde durante siglos se guardaron los ejemplares originales del Fuero Viejo y del Fuero Nuevo, los fueros y costumbres de nuestro territorio histórico”, ha señalado Otadui.

Tras las intervenciones de los máximos representantes del Legislativo y Ejecutivo vizcaíno, y tras recibir Juan Luis Ibarra, Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, un retoño del Árbol de Gernika, de manos de Ana Otadui, los jueces han accedido primeramente al hemicycle de la Cámara vizcaína y, después, al exterior para hacerse una foto de familia junto al joven roble. La inédita visita ha concluido con una firma en el Libro de Honor de la Casa de Juntas y con la entrega, de manos de la presidenta de Juntas Generales, de un ejemplar del libro “La Foralidad” del catedrático Jesús María Larrazabal.